

Bezeroen Segmentazioa

Gure bezeroak Euskadikoak izango dira, konkretuki hurrengoak:

1. Udalak, Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundia
2. Enpresa handiak
3. Ikastetxeak

Bezeroei gure programa eskeiniko diegu, enpresa ahal den guzti hazteko eta hondakinak eta ingurumeneari eragiten duen kutsadura buruzko sentsibilizazioa ahalik eta pertsona gehienei heltzeko.

Hasteko, eta nagusiki, Euskadiko udalei, Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari eskeiniko diegu gure ekintzak. Aipatzekoa da aurreko hauek libreki kontratatuko ditutela, hau da, lizitaziorik gabe. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, guretzat interesgarriak izango ziren departamenduak Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa, eta Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa izango lirateke. Foru Aldundiari dagokionez, Natur ingurune eta Nekazaritza saila da departamendurik interesgarriena.

Baliagarria da gure zerbitzua haientzako haien herritarrak, lehen aipatu den bezala, hondaketan eta kutsaduran sensibilizatuko ditugulako, haien hondartzak, mendiak edota kaleak garbitzen ditugun bitartean. Horrekin batera, turismoa erabat bultzatuko dugu, balore proposamenean aipatzen den bezala, zabor bilketetan biltzen den zaborra “street-art”-a egiteko erabiliko delako.

Udalekin batera, EAEko enpresa handiak izango ditugu bezero bezala. Kontratatuko digute, eta guk haien izenean prestatuko ditugu ekintzak, holan, haien irudia garbitu edo ongi mantendu ahal izateko. Enpresa hauen artean adibide batzuk Iberdrola, BBVA edo Kutxabank dira.

Honekin ere, gure helburua ahal den pertsona gehien kontzientziaztea eta sensibilizatzea denez, ikastetxeak gure bezero moduan hartuko ditugu. Edozein motatako ikastetxera aginduko gara, Euskadin ikastola kontzertatu eta publikoak nagusitzen direla kontuan hartuz. Euskadin dauden gutxi gora-behera 1800 ikastolen artean, erreferenteak direnetan enfokatuko gara, 10 bat direnak. Urtean sei aldiz, ikastetxeekin ekintza bat egingo dugu, besteak bezala, zabor bilketarena. Holan, adin gehiagotara helduko da gure mezua.